

Elikadura osasungarriaren aldeko konpromisoa

**NUTRI-SCORE ETIKETA DUTEN ESPAINIAKO
LEHEN PRODUKTUAK ATERA DITU EROSKI-K**

- **Etiketa aurreratu berria aurrendaria da Europan, eta aurrerapen handia ekarriko du, orain errazagoa izango baita elikadura osasungarriagoa egitea; izan ere, argiago azalduta dakar elikagaiek nolako nutrizio kalitatea duten**
- **Nutri-Score etiketa berriak bost mailatan sailkatzen ditu elikagaiak, kolorezko letren bidez (A berde ilunetik E laranja ilunera), kalorien, mantenugaien eta osagaien arabera**
- **Osasun Ministerioak eta Europako Batasunak balioztatua dago Nutri-Score, eta Osasunaren Munduko Erakundearen babesa du; gainera, EROSKIko 8.500 bezero-bazkidek baino gehiagok haren alde egin dute, erabiltzeko erraza, baliagarria eta praktikoa dela iritzi baitiote**

Elorrio, 2019ko urtarrilaren 15a.- [EROSKI](#)ren dendetan dagoeneko hor dira marka propioko lehen produktuak, Nutri-Score etiketa dakartenak, beren nutrizio kalitatea haren arabera sailkatuta. Hala, EROSKI aurrendaria bihurtu da Espainiako nutrizio arloko etiketa horren banaketan. Osasun Ministerioak orain berriki balioztatu du, eta, iragarri duenez, urtebeteren buruan orokortua egongo da.

"Elikagaiek nutrizio aldetik duten kalitatea modu ulergarrian erakustea funtsezkoa da, eta hori bera da gure [Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde hartuak ditugun konpromisoetako bat](#). Horregatik, EROSKIIn beti saiatzen gara abangoardian egoten, informazioaren gardentasunaz ari garela, eta apustu egiten dugu dauden sistemarik aurreratuenen alde, zertarako eta kontsumitzaileek beren dieta errazago diseina dezaten eta, hala, modua izan dezaten elikadura orekatsua, osasuntsua eta iraunkorra egiteko", esan du EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Hauek izango dira Nutri-Score etiketa izango duten Espainiako lehen produktuak: tomate birrinduaren kontserba bat eta mikrouhin labeen prestatzeko patata pack bat, biak ere EROSKI markakoak, eta tomate lehorra oliotan duen EROSKI Selectia markako kontserba bat. Urrian kooperatibak iragarri bezala, etiketa berri hori, pixkanaka, marka propioko produktu guztietan aplikatuko du. EROSKIren nutrizio arloko semaforoari lagun egingo dio, zeinak hamar urtetik gora baitaramatza bere markako ontzi guztietan. *"Bi sistemak osagarriak dira. Kontsumitzaileak erraz ikusi ahalko du nutrizio aldetik nolako balorazioa duen produktu bakoitzak, eta antzekoak diren beste batzuekin konparatuz onena aukeratu, nutrizio arloko*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

semaforoak ematen duen informazioaren xehetasunik galdu gabe", esan du Martinez Berriochoak.

Elikadura zientzien arloko akademikoek sortua da Nutri-Score eredua, eta Europako Batasunak balioztatua dago; gainera, Osasunaren Mundu Erakundeak bere onarpena emana dio. Kooperatibak ekimen hau proposatu zien Bezero Bazkideei, aurretik nutrizio arloko zenbait etiketa eredu aztertu ondoren; azterketa hori EROSKIren Batzorde Zientifikoak gauzatu du, eta osasunaren, elikaduraren eta kontsumoaren arloko adituen aholkuak izan ditu. 10.000 Bezero Bazkidek baino gehiagok parte hartu zuten EROSKIren prozesu parte hartzailean. Irailean jarri zuen martxan, ekimena balioztatzeko, eta %85ek haren alde egin zuten; izan ere, eredurik erabilgarriena, osoena eta ulergarriena dela uste dute, eta tresna egokia elikadura osasungarriagoa eramateko eta nutrizio hautu hobea egiteko.

Nutri-Score etiketa aurreratuak sailkapen orokor bat erakusten du nutrizio kalitatearen arabera, eta bost mailatako eskala soil bat darabil horretarako, bakoitza letra eta kolore batekin adierazia (A berdetik E laranja ilunera). Kalkuluei dagokienez, hiru elementu neurtzen ditu produktu baten 100 gramotan: kaloriak, osasunerako onak izan daitezkeen mantentugaiak (zuntza, proteina eta fruitu, barazki, fruitu lehor eta lekale kopuruak) eta murriztea komeni den mantentugaiak (gantz saturatuak, gatza eta azukreak).

EROSKI, aurrendaria nutrizio arloko etiketa garatu bat ateratzen

EROSKI aurrendaria izan zen 2007an, semaforo nutrizionala ipini baitzuen bere produktuen ontzietan. Aurrerapen handia ekarri zuen bere garaian, eta gaur egun bere markako artikulu guztietan da. Haren bitartez, kontsumitzaileek begi kolpe batean ikus dezakete zenbat kaloria, azukre, gantz, gantz saturatu eta gantz dakarren produktu baten errazio batek hura kontsumitzean, baita egunean kontsumitu beharrekoen ehunekoak ere, hiru kolorerekin, berdea, horia eta laranja; bere izenak dioen gisan, semaforoek bezala.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)